


euskararen berripapera

201



Jaurlaritzak, Generalitateak, Xuntak eta Govern-ak **Microsoft** saritu dute

Lau gobernuek Espainiako Estatuko izaera eleanitza sustatzeko xedearekin eratu duten saria eman diote Microsoft enpresari.



Eusko Jaurlaritzako, Kataluniako Generalitateko, Galiziako Xuntako eta Balear Uharteetako Goberneko ordezkariak sari-emate ekitaldian.

Eusko Jaurlaritzak, Kataluniako Generalitateak, Galiziako Xuntak eta Balear Uharteetako Governak, hizkuntza-politikaren alorrean indarrean duten lankidetzaren baitan, enpresa edota erakunde batek Espainiako Estatuko hizkuntza-aniztasunaren alde egindako lana aitortzen duen saria eratu dute. Lehen edizioko saria Microsoft enpresari eman diote teknologia berriak eta hizkuntzen aniztasuna uztartzeko egin duen lanagatik. Microsoftek bere ekoizkinak Espainiako Estatuko hizkuntza ofizial guztietan kaleratu ditu, egun gaztelaniaz, gailegoz, katalanez eta euskaraz eskaintzen ditu Windows eta Officeko sistemak.

Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak Microsoftek eleaniztasunaren alde egindakoa eta emandako eredu txalotu ditu. Bere hitzetan, eleaniztasuna abantaila eta aukera da, «beste era batera esanda, nire ustez Babel ez da madarikazioaren sinonimoa; aldiz, aukera da eta elkarbizitarako bedeinkazioa. Microsoftek hizkuntzen arteko elkarbizitza eragiten du eta jakina den moduan eleaniztasunak eta hizkuntzen arteko elkarbizitzak ez ditu predikatu behar, praktikanteak zor ditu».

Lau gobernuen arteko lankidetzaren hitzarmena

Eusko Jaurlaritzak, Kataluniako Generalitateak eta Galiziako Xuntak 2007ko apirilean izenpetu zuten hizkuntza-politika gaietarako lankidetzaren hitzarmena. Balear Uharteetako Governak 2008ko abenduan egin zuen bat hitzarmenarekin. Hitzarmenaren bidez, hizkuntzaren alorrean elkarlanerako esparru egonkor eta iraunkorra zehaztu eta garatu nahi da, benetan eraginkorra eta positiboa izan dadin, beti ere bakoitzaren politikak eta bereizgarritasunak errespetatuz. Hizkuntzen berdintasun soziala jomuga, esperientziak trukatuz, eta egitasmoak eta jarduketak bultzatzen dituzte.

Horrez gain, badu beste helburu bat hitzarmenak: euskarak, katalanak eta galegoak Espainiako Estatuan tratamendu hobea, duinagoa eta errespetu handigoa jaso dezaten sustatze-lana egitea. Akordio horren bidez, Espainiako Estatuak bere erakundeetan gaztelania ez den beste hizkuntza ofizialen erabilera ahalbidetzeko neurriak har ditzan eskatzen dute, bereziki alor hauetan: Kongresuan, Senatuan, Justizia Administrazioan, sozietate estataletan, zerbitzu-enpresa publikoetan (Posta eta Renfe adibidez) eta titularitate publikoaren estatuaren eremuko hedabideetan.

Lau gobernuek adierazi dute Espainiako Estatuan biztanleen % 40a gaztelaniaz ez beste hizkuntza ofizial berezkoa duten erkidegoetan bizi dela, Espainia estatu eleanitza dela eta beraz, eleaniztasun hori aitortu eta berezko hizkuntza horien erabilera errespetatu eta sustatu behar dela.


Europako Kontseiluko Aditu Batzordeak, duela gutxi, aipatutako autonomia erkidegoak goraiatu ditu, beren hizkuntza propioak biziberritzeko eta normalizatzeko abian dituzten politika egituratuengatik eta hizkuntza-politikaren esparruan esperientziak elkarrekin trukatzeko lankidetzaren hitzarmena sinatu izanagatik ●

Elebiden kexak, iradokizunak eta beste % 25 igo dira. Horietatik, % 77 konpondu da jada eta % 14 konponbidean da


2007an Elebidek 248 kexa, iradokizun, kontsulta eta eskaera jaso zituen eta 2008an berriz, 310. Kexen artean % 87 esparru publikoan gertatutakoak izan ziren. Kexen % 77 konpondu egin dira.

Elebide Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2007an abian jarritako hizkuntza-eskubideak bermatzeko zerbitzua da. Hiru eginkizun ditu: hizkuntza-eskubideak sustatu eta bermatzea, berme hori eraginkorra izan dadin prozedura bat ezartzea, eta hizkuntza-eskubideen urraketen konponbideak ezartzeko ardura duten administrazioekin eta erakundeekin lankidetzan jardutea. Azken finean, *Elebideren* xede nagusia honako hau da: salaketa sistematikotik konponbideak bilatzera eta ezartzera pasatzea. Helburua ez da jazartzea, baizik eta hizkuntza-eskubideak betetzea eta betearaztea, eta tartean dauden eragile orori xede hori erdieste-ko beharrezko lankidetzak eskaintzea.


Esparru publikoaren aurkako kexak



Esparru pribatu arloko kexak



Izapidetutako kexen tipologia



Elebideren eginkizunak, azken buruan, bat datoz euskal administrazioen hizkuntza-politikak, hizkuntza-eskubideei dagokienean, dituen oinarriekin. Zerbitzuaren bidez herritarren eskubideak babesten dira, administrazioek zuzenean jasotzen dute egindako eskubide-urraketen berri eta *Elebideren* bidez arazoak konpondu egiten dira.

Dena dela, zerbitzu horrek badu bestelako helburu bat ere. Alegia, herritarrei jakinaraztea hizkuntza-eskubideak dituztela eta, eskubide horiek urratuz gero, kexatzera animatu. Sentsibilizazio hori gogoran, 2008ko udaberrian "Gizarte elebiduna lortzeko egiten dugu lan" publizitate-kanpaina egin zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Kanpainak xede jakina zuen: euskara zein gaztelania erabiltzeko aukera ematen duen benetako berdintasuna aldarrikatu eta azpimarratzea.

Eskubide urraketa dagoenean eman beharreko pausoak

Prozedura, gutxi-asko, honako hau da: herritarrek euren kexa, kontsulta eta iradokizunak **012** telefonoaren bidez edo **www.euskara.euskadi.net/elebide** webgunean egin ditzakete. Kexak, iradokizunak eta kontsultak *Elebideko* zerbitzu juridikoak sakon aztertu ostean izapidetzeko onartzea edo aintzat ez hartzea erabakiko du. Hizkuntza-eskubideak urratu direla ondorioztatzen bada, gaiaren eskumena duen sailarekin, erakundearekin, herri-administrazioarekin edo entitatearekin harremanetan jarriko da eta aholkuak emango dizkio ahalik eta irtenbiderik onena aurki dezan. Arazoa konpondutakoan intzidentzia itxiztat emango da.

2008ko jarduera-txostena

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak otsailean aurkeztu zuen *Elebideren* 2008ko jarduera-txostena. Hizkuntza-eskubideak bermatzeko zerbitzuak 2007an baino % 25 intzidentzia gehiago jaso zituen 2008an. Kexa eta iradokizunetatik ia denak onartu zituen, 310etik bost baino ez zituen baztertu. 310 intzidentzia horietatik ia denak, %89, hain zuzen ere, kexak izan ziren, kontsulta eta iradokizunen aurretik. Herritarrek aurkeztutako kexen artean, sektore publiko edo herri-administrazioaren zerbitzuekin lotutakoak ziren nagusi. Horien artean, hurrenez hurren, EAEko Administrazio orokorra, toki administrazioak, foru administrazioak eta Estatuko Administrazio orokorra daude.

Ia kasu guztietan (% 97) hizkuntza-eskubideen urraketak euskarari eragin zion, % 3an baino ez gaztelaniari. Kexa kopururik handiena (% 44) idatzizko harremanen ondorioz etorri ziren. Kexen % 77 konpondu da jada eta % 14 konponbidean da ●

Eusko Jaurlaritzak **euskara-egiaztagiri** guztiak baliokidetu ditu

2008ko Dekretutik kanpo geratu ziren egiaztagiriak bildu dituen 48/2009 Dekretua onartu da.

Eusko Jaurlaritzak euskara-egiaztagirien arteko baliokidetzak zehaztu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuarekin parekatu zituen 64/2008 Dekretua onartu zuen 2008ko apirilean. Baliokidetzak sistema horren bidez, euskara-egiaztagiri gehienak Hizkuntzen Europako Markora egokitu eta elkarrekin baliokidetu ziren. Hala ere, sistema horretatik kanpo utzi ziren hezkuntza arloko hainbat egiaztagiri, Dekretuan gerora sartzeko asmoarekin.

Otsailaren 24an onartutako 48/2009 Dekretuak, 2008ko Dekretu hura egokitu eta handik kanpo geratu ziren egiaztagiriak bildu ditu bere baitan, baliokidetzak sistema erabat osatuz. Hala, HAEE-IVAP-ek, HABEK, Osakidetzak, Ertzaintzak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailak, Euskaltzaindiak (D agiria), Nafarroako Gobernu Hezkuntza Sailak (EGA) eta Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako egiaztagiriak elkarrekin baliokidetu eta Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1, B2, C1 eta C2 mailekin parekatu dira.

2008ko apirilean onartutako baliokidetzak sistema eragin zuzena du orain arte euskara-egiaztagiri duten milaka herritarrengan edota agiriren bat eskuratzeko asmoa dutenengan.

Patxi Bazterrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak baliokidetzak sistemaren garrantzia azpimarratu du, euskara-egiaztagiri guztiak baliokidetu baitira eta horrela, herritarrek, euskaltegiek eta erakunde askok aspaldidanik egindako eskaerari erantzun baitzaio.

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluaren Batzorde delegatuak 2006ko uztailan erabaki zuen euskarazko egiaztagiriak Hizkuntzen Europako Markoarekin parekatzea eta agiriak baliokidetzak. Zeregin horretan berariaz antolatutako batzordea aritu da. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren gidaritzapean HABE, HAEE-IVAP, Hezkuntza Saila, Osakidetzak eta Herrizaingo Saileko ordezkariak izan dira batzordeko partaide ●

Euskararen ezagutza egiaztagirien arteko baliokidetzak Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoari egokituta

	B-1	B-2	C-1	C-2
Administrazio Orokorra, IVAP	1. HE	2. HE	3. HE	4. HE
Justizia Administrazioa		2. HE	3. HE	4. HE
HABE	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila
Osakidetzak	1. HE	2. HE	3. HE	4. HE
ERTZAINZA		Ertzaintzaren 1. HE	Ertzaintzaren 2. HE	
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEK Eusko Jaurlaritza		Irakaspostuen 1. HE	Irakaspostuen 2. HE	
Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialak	3. maila (Antzinako Ikasketen Planak) Tarteko Maila	4. maila (Antzinako Ikasketen Planak) Maila Aurreratua	6. maila edo euskal gaitasun maila (Antzinako Ikasketen Planak) Gaitasun Maila (C1)	
Nafarroako Foru Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialak	3. maila (Antzinako Ikasketen Planak) Tarteko Maila	4. maila (Antzinako Ikasketen Planak) Maila Aurreratua	5. maila edo euskal gaitasun maila (Antzinako Ikasketen Planak)	
Madrilgo Hizkuntza Eskola Ofizial Nagusia			6. maila edo euskal gaitasun maila (Antzinako Ikasketen Planak)	
Nafarroako Gobernu Hezkuntza Saila			EGA - Euskararen Gaitasun Agiria	
Euskaltzaindia			"D" agiria	



Iparraldean euskara bultzatzeko hitzarmena



Eusko Jaurlaritzak eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) euskararen gaineko hizkuntza-politika gaietan mugaz gaindiko lankidetzak eta erakunde mailako harreman iraunkorrak garatzea helburu duen 2009rako lankidetzak-hitzarmena sinatu dute. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta EEPk 2007an sinatu zuten 2007-2010 urteetarako elkarlanerako marko nagusiaren arabera, urtero sinatuko da elkarlanerako eranskina. Hala, 2009ko eranskinean bi atal nagusi aurreikusi dira: HPS eta EEPren arteko ekimenak eta sustapen-lerroak.

Iparraldeko eragileei zuzendutako 2009ko sustapen-lerroei dagokienez, lankidetzak-fondoa 1.390.000 euroekin hornituko dute, 2008an baino 50.000 euro gehiagorekin. Eusko Jaurlaritzak 470.000 euro jarriko ditu, eta EEPk, berriz, 920.000 euro. Diru-laguntza euskararen alde lan egiten duten bertako hainbat eragile pribaturi helaraziko diote, deialdi publiko eta bateratuaren bidez ●


HPS eta Microsoft elkarlanean



Microsoft enpresak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren laguntzarekin, 2008ko ekaina eta iraila bitartean egindako **“Klik egin euskarari” deskargen lehiaketako sariak** banatu zituen otsailean. Kanpaina horren helburua, herritarrek euskarazko interfazeen ahalik eta deskarga eta instalazio gehien egitea zen.

HPSk eta Microsoft enpresak lankidetzan dihardute teknologia berrietan euskararen zabalkundea eta erabilera bultzatzeko. Euskarazko Windows Vista eta Microsoft Office 2007 produktuen zabalkundearen erakutsitako konpromiso eta lankidetzak horregatik, hain zuzen ere, **Microsoft Local Language Program Award** saria eman dio Microsoft enpresak Eusko Jaurlaritzari. Miren Azkarate Kultura sailburuak biziki eskertu zuen saria eta Microsoftek euskararekiko nahiz Estatu gainontzeko hizkuntzekiko erakutsi duen inplikazioa nabarmendu zuen ●

IKTB Internet bidezko telebista



Nafarroako Ikastolen Elkarteak (NIE) bereziki gazteentzat den IKTb Internet bidezko telebista jarri du martxan. Ekimena gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko tresna ezin hobea da. Euskara erabiltzen du hizkuntza nagusi bezala webgunean zehar mugitzeko.

Munduko edozein lekutan ikus daiteke **www.iktb.tv** webgunea eta hainbat motatako edukiak bildu dituzte bertan: musika-talde bideoak, agenda kulturala, solasguneak, erabiltzaile bideoak igotzeko gunea...

Izaskun Arratibel NIEko lehendakariak adierazi duenez, IKTbren bitartez elkarteak teknologia berriekin duen konpromisoa berretsi du. Era berean, eta eskoletako hainbat eduki bertan jarrita egongo denez gero, haur eta gazteen ikaskuntza osatuko duen baliabidea ere izango da.

Proiektuak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren diru-laguntza jaso zuen 2008ko IKT deialdian ●

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren kontaktu-fitxategian sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saila / Zerbitzu Zuzendaritza / Donostia kalea 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
Eusko Jaurlaritza / Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 69 44 • berripapera@ej-gv.es

Legezko gordailua: VI-572-1992
ISSN: 1138-3038

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



DK-000023
100gr.ko Cyclus Print
paper birziklatuan
inprimatua